



PRENTSA OHARRA
NOTA DE PRENSA

Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak #ScotlandGoesBasque programaren baitan antolatutako emanaldiak bisitatu ditu Edinburghen eta euskal kultura nazioartekotzeak duen garrantzia nabarmendu du

- *Etxepare Euskal Institutuak antolatutako ekimen honi esker, egunotan 48 euskal sortzaile Fringe eta Edinburgh International Book Festival jaialdian parte hartzen ari dira.*

Edinburgh, 2019/08/11

Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua Edinburghen dago egun hauetan, #ScotlandGoesBasque programaren baitan antolatutako zenbait ekimen eta emanaldi bertatik bertara ezagutzen. Ostiralean eta asteburuan zehar Edinburgh Festival Fringe eta Edinburgh International Book Festival jaialdian euskal sortzaileek eduki duten partehartzea ikusteko aukera izan du eta, oro har, Euskaditik joandako artistak babestu nahi izan ditu. Handik azaldu duenez, euskal kultura nazioartekotuz bi helburu nagusi lortzen dira: “euskal sortzaileei aukera berriak eskaintzen zaizkie” eta “gure herria eta kultura nazioartean ezagutzera ematen dugu”.

#ScotlandGoesBasque programari esker, euskal kultura ikusgai egiten ari da urte osoan zehar Eskozian. Neguan euskal musika izan zen protagonista, eta udaberrian euskal zineak hartu zuen lekukoa. Orain, abuztuan, arte eszenikoen eta literaturaren txanda da. Eta Edinburgh Festival Fringe eta Edinburgh International Book Festival dira geraleku berriak. Etxeparek abiatutako bide berri honen garrantzia azpimarratu du: “Etxepareren lanari esker euskal sortzaileek beren talentua mundu osoko hainbat herrialdetara eraman dute azken urteetan. Aurten, urteroko lan hori egiteaz gain, Etxeparek erronka berri bat ezarri du: herrialde bat lehenetsi eta nazioartean euskal kulturaren erakusleho nagusi bilakatu. Eta helburua da urte urte proiektu honi ekitea. Eskozia izan da lehen geldialdia, Euskadi-Basque Country estrategiaren baitako lurralde estrategikoetako bat delako eta kulturak pisu handia duelako herrialde honetan, batez ere udako jaialdian. Ikusten ari gara erabaki zuzena izan dela, eta datorren urtean bide honi jarraipena emango diogu, Quebecen”.

Sailburuak nabarmendu duenez, kulturaren arloa estrategikoa da aipatutako Euskadi-Basque Country nazioartekotzeko estrategian: “Eusko Jaurlaritzak onartutako Euskadi-Basque Country 2020 estrategiak nazioartekotzerako tresna estrategiko gisa identifikatzen du kulturaren arloa, industria, turismoa edota kanpo-harremanekin batera. Gure herriaren irudia zeharo aldatzen ari da azken urteotan, eta denok ikusten ari gara kulturak hartu duen pisua Euskadiren irudi berri horretan. Gero eta gehiago ikusten gaituzte kulturaren interesa duen herri



bat bezala; nazioartean gero eta ikusgaiagoa da gure kultur eskaintza: gure museoak, jaialdiak edota sortzaileak. Horrekin batera, Euskadin bertan egiten dugun apustu horrez gainera, uste dugu egokia dela gure sortzaileei aukerak erraztea beren talentua gure mugetatik harago eraman dezaten. Eurek eskertu egiten dute beren ibilbide artistikoan oso lagungarria izan daitekeelako eta, era berean, gure kulturaren enbaxadore bilakatzen dira”.

Etxepare Euskal Institutuak antolatutako #ScotlandgoesBasque programari esker, abuztuaren 7tik 18ra arte bereziki nabarmena izaten ari da euskal sortzaileen presentzia. Guztira, 48 euskal sortzaile parte hartzen ari dira Fringe eta Edinburgh International Book Festival jaialdietan. Arte eszenikoen mundu mailako jaialdirik handiena den Fringe jaialdian honako dantzari eta musikari hauek ari dira: 2Theatre antzerki konpainia, Tio Teronen Semeak, Krego-Martin Danza, Akira Yoshida, Proyecto Colectivo HQPC eta *Atlantik 1050* ikuskizunean parte hartu duten artistak. Halaber, Edinburgh International Book Festival jaialdian parte hartzen ari dira Iban Zaldúa, Harkaitz Cano, Miren Agur Meabe, Uxue Alberdi, Bernardo Atxaga, Eider Rodriguez eta Danele Sarriugarte idazleak.